

Otxanda eta baloiak



Herri bateko karrketan,
gizon batek baloiak saltzen
zituen. Haren lana zen. Kolore guzie-
tako baloi ederrak: gorriak, berdeak,
xuriak, urdinak, handiak eta
borobilak...

Goiz batez, Otxanda baloi saltzaileari ohartzen zaio. Otxandak baloi bat, baloi gorri bat nahi du baina hara : dirurik ez du. Sakelak itzuli, berriz itzuli, eskuina, ezkerra... Otxandak zentimorik ez du! Gaixo Otxanda!

10

Baloi saltzaileak ikusten du eta erraiten dio :

– Egun on, neska! Zein nekatua naizen ! Bakarrik naiz baloien saltzeko. Karrikan ibiltzeak unatzen nau.

Aulki batean jartzen da apur bat pausatzeko.

Otxandak, orduan : – Nahi baduzu, nik salduko ditut baloiak !

15

– Hori, hori, ideia ona! Hola eginen dugu!

Saltzaileak Otxandari baloi guziak eman zizkion.

Otxanda gogoia alai ibili zen karrkaz-karrika, sudurra airean, baloi eder horiei so. Baina orduan haize zirimola batek baloi gorri bat hartu zion eta zuhaitz baten kaskoan kokarazi.

20

– Ene baloi gorria!

Otxanda triste da. Hara non gatu xuri bat ikusten duen.

Gatu xuriak, buztana ibiliz eta begiak argi, hauxe erraiten dio :

– Miau! Miau! Baloi bat nahi nuke.

– Zein nahi duzu?

25

– Baloi berdea nahi dut!

– Baloiak ez dira eneak... bestalde, gatuek dirurik ez dute...

Halere, gatu xuriari buztanean baloi berdea lotu zion Otxandak.

Gatua berehala zuhaitza goiti joan zen... milesker ere erran gabe!

Burua altxatzean, Otxandak urtxintxa ikusten du adarrez-adar jauzika.

30

– Otxanda! Baloi bat nahi nuke...



– Zein nahi duzu?

– Baloï urdina nahi nuke...!

35 – Baloïak ez dira eneak... bestalde, urtxintxek dirurik ez dute...

Bizkitartean, urtxintxari gibeïeko patatik baloï urdina lotu zion Otxandak.

Urtxintxa ere zuhaitza goiti joan zen... eskertu gabe.

40 Otxandak pentsatu zuen: "hiru baloï gutiago!"

– Rukuku! Rukuku! Rukukuuu – ari zen uso xuri bat.

– Otxanda! Baloi bat nahi nuke.
 – Zein nahi duzu?
 – Baloi xuria.
 – Baloiak ez dira eneak... Gehiago dena, usoek dirurik ez dute... 45
 Dena den, uso xuriak baloi xuria eraman zuen mokoan... deus
 erran gabe.
 – Orain lau baloi gelditzen zaizkit; horiek saldu behar ditut.
 Gibeletik entzun zuen:
 – Otxanda! Otxanda! 50
 Itzuli zen eta lagunak ikusi zituen: Jon, Ainara, Joanes, Kenan.
 – Zein politak diren baloi horiek!
 Jon: – Horia nahi dut!
 Joanes: – Ubela!
 Kenan: – Nik, laranja! 55
 – Eta nik xuri eta gorria – erran zuen Ainarak.
 – Baina baloiak ez dira eneak!
 – Prestatzeko bakarrik! Are, presta!
 Otxandak baloiak prestatu orduko, lau neska-mutilak
 eskapatu ziren eta zuhaitza goiti joan... batere eskertu 60
 gabe. Gaixo Otxanda! Baloirik eta dirurik gabe geldi-
 tu zen.
 Horra baloi saltzailea. Otxanda arrunt triste zen.
 – Non dira baloiak? Denak saldu dituzu?
 Otxanda isilik gelditu zen. Zuhaitza erakutsi zuen. 65
 Burua altxaturik, gizonak baloi guziak, gorria, berdea,
 xuria, urdina... zuhaitzean zirela ikusi zuen.
 Baloi saltzailea orduan irriz hasi zen.
 – Zer zuhaitz ederra... dena baloiez apaindua. Ez kexa, neska...
 Etxean beste anitz badituz. Bihar salduko ditugu. 70
 Denak kontent zeuden: gatua, urtxintxa, usoa, lau haurrak...
 Otxanda ere, bere baloi gorriarekin.
 Eta nolaz ez lagunez inguraturik zen baloi saltzailea!



Nathan argitaletxeko *Lire et parler* liburutik egokitua.

1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Nolakoak dira baloiak ?
- Nolako baloia nahi zuen Otxandak ?
- Zer erraiten dio saltzaileak ?
- Nori emaiten dio baloi xuria ? Eta urdina ? berdea ?...
- Saltzaile ona dea Otxanda ? Zergatik ?
- Gizon gaixtoa dea saltzailea ?

2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

- Erranaldi hauek idatz hutsuneak betez.



..... ogia egiten du eta saltzen.

..... haragia saltzen du.

Sukaldariak janaria prestatzen du.

..... ilea mozten du ile-apaindegian.

..... autoa garajea konpontzen du.

- Ereduari begira eta erranaldiak idatz hutsuneak betez.

Urtxintxa arbola batetik bestera badoa.

Saltzailea etxe batetik bestera dabil.

Mendizalea mendi batetik bestera badoa.

Korrika herri batetik bestera ibiltzen da.

Musika karrika batetik bestera entzuten da.

Urtxintxa arbolaz-arbola badoa.

Saltzailea etxe dabil.

Mendizalea badoa.

Korrika ibiltzen da.

Musika entzuten da.